

# Nett Irakasleen Heziketa eta Prestakuntzarako Sareak onartu egin du HUHEZI kide moduan

2008/07/02

Ekainean Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultatea NETTsarean sartu da, *Network for the Education and Training of Teachers* (Irakasleen Heziketa eta Prestakuntzarako Sarea). **32 Hezkuntza fakultatek** osatzen dute NETT sarea, **20 herrialde**etakoak, denak Europako Batasunean. Unibertsitate horiek ideal bat partekatzen dute, **elkarrekin garatzeko hezkuntza sistema Europan** eta bultzatzeko **ikasleen eta irakasleen arteko mugikortasuna**.

Nett sareak osatu egiten du aurretik Huhezik ETEN sarearekin duen hitzarmena, zeinaren bidez harremanetan dagoen 52 unibertsitate eta erakunderekin, herrialde askokoak. Bi sare horietan egonda, **Huhezi harremanetan dago Europako Irakasle Eskola gehienekin**.

NETT

---